

ELKAR HIZKETAN

KARRERA TEKNIKOEN IRAKASKINTZAZ RIKARDO ETXEPAEREREKIN

F. Azpiroz

Teknika irakaskuntzan hamabost urte inguru iharduna dugu Rikardo Etxepare, Profesional Eskoletan lehenbizi, Injinadore Teknikoenean Teknologia Kate-dradun, eta Donostiako Injinadoreen Eskolan azkenik. Hau guztia, industriarekiko harremanik eten gabe, ikerketa proiektu ezagun batzu ere eginak ditu Invenemarekin. Aipaturiko gai honetaz iritzi eske jo dugu beregana, eta hara zer dion.

Joan den aspaldian Euskadin, sektore artean, enpresa hedatzean, eta darabilen teknologian, aldaketa handiak gertatu dira: zein izan da, industrian, delako joera honek teknikoek eginkizunean sortu duen eragina?

Orain baino lehen teknikagintzak ez du jakinduri maila handirik eskatu, eta batez ere gainean zeraman subdesarroiola gatik izan dela deritzat. Honek gure eskualdeetan zeuden bitarteko eskasekin batera, teknikagintza profesional ikastetxeetatik sortutako teknikoek gain utzi du. Titulatutako nahiz Injinadore ala Peritoek jesterio gisako eginkizunak eraman dituzte, kontrol, aginte eta antzeko zereginetara lotuz.

Egungo teknologi aldaketak, ordea, profesional ikastetxeetan titulatuek hainbat teknika arazo erabakitzeke dituzten ahalmenak gainditu egin dizkie, eta bi era hauetan: aurrena jakintzaren sakontasun mailan, eta bigarren gai desberdinak (mekanika, elektrizitate, hidraulika, ...) erabiltzean.

Bestalde, teknikoek arloa ez da, esan ohi den teknika eginkizunean (proiektuan) mugatzen. Teknikoek baita ere sartzen dira produktoen fabrikakuntzan, eta merkaturatzean.

Teknologi aurrerabide eta teknikoek eginkizunean, besteak beste, eragirik handiena sortu duen faktorea, zabalki hartuz, automatizazioa izan da. Zabal-ki diot, zeren, makinak automatizazioez gainera hor bait daude ordenadorez kalkuluen automatizatzea, kontrolak eta beste.

Garaiko industriak behar dituen maila desberdinetako teknikoek ezaugarriak zeintzu izango liratake?

Industrian teknikoek daukaten toki eta maila desberdinegatik, nahiz eta erraza ez izan ezaugarriak izendatzea, garbi dagoena zera da, espezializatu beharra: eginkizunez, eta industri motaz. Eginkizunez berriz teknikoek lau sailetan bildu litezke: ikerketa eta aurrerabiderako teknikoak, projektuetako teknikoak, produkzioko teknikoak, eta azkenik, jestioko teknikoak.

Aurrenengo biek, badirudi prestakuntza zientifiko handia eta sakona behar dutela, produkto berriak desarroila ditzaten. Produkzioko teknikoei berriz, euren eginkizuna ondasun eta zerbitzuak sortzea denez gero, honetarako beharrezko diren gauza, giza eta ekonomi bitartekoak egokitu eta erabiltzeak, teknologiaz gainera, sozial eta ekonomi prestakuntza eskatzen die.

Jestioko teknikoari, direkzio ekipotan sartuta egon ohi denez, ekonomilari, finantzaile eta abarrekin, eta askotan direkzioko karguetara iritxi daitezkeenez, bere prestakuntza, teknologiaz gainera, jestiio, organizazio eta administralgo gaietan egokitu behar litzaioke.

Teknika hauk guztiak bi mailatan erabili ahal izanagatik, ikertzaileek eta jestioko teknikoek goi mailako prestakuntza behar dutela esan daiteke. Proiektu eta produkzioko teknikoek erdi maila eta goi mailakoak izan daitezke.

Profesional eskolek, Injinadore Teknikoenek eta Injinadoreen Eskolek ze neurritan erantzuten diete industriaren eskabideei?

Ezinezkoa da hemen ditugun zentroek industriaren eskabideei erantzutea. Hasteko, gogora dezakegu nola sortuak diren, eta bistan dago egoerak dituen premien inolako analisirik gabe erabaki ohi dutela irakaskintzaren politika. Gehiago oraindik, ale batzuk ezean, teknika helbururik gabe eta kalitate guztiz eskasarekin, batere errendimendurik gabe ari dira.

Ikastetxeen erantzuna desegokia dela ohartzeko nahikoa da industriak har lezazkeen halako bi tornero eta esturkturetako injinadore ateratzen direla jakitea. Bestalde, 30% goimailako injinadoreek eta teknikoek produkzioko tokitan lana egiten dute, eta bitartean gai hauetaz prestaketa berezia guztira 5% bakarrik dute egina.

Eskola ofizialak herriaz batere arduratu gabe bizi dira, industriarekin inolako harremanik ere ez dutela. Bestalde, eskola hauetako irakaslegoa arrotzez osatua egonik Euskadikin inolako lokarririk gabekoa da. Kondizio hauetan, eta kanpoko Unibertsitateen baitan diren bitartean, eskola teknikoek ez diezaiokete erantzun industriaren eskabideei.

Euskadiko Eskola Teknikoetan zein karrera eman behar lirateke?

Karrera teknikoek ugaritzea bera baino, lehendik ematen direnak taxutzea eta herriaren premien baitan heziketa sistema eratzeari bidezkoago deritzat. Halere, badirudi profesional ikasketak espezialitate gehiagoerekin eman behar liratekela. Hau egin behar bada ere inola ere ez gintezke modan dauden gaietan larriegi sartu, bestela gerta daiteke lehen inoiz gertatu dena, urte bakar batean titulaturako delinanteak ondorengo bostetan ezin laneratu ahal izatea. Arrisku bera suma daiteke elektronika espezialitatean.

Beste maila batetan, Injinadore Teknikoen espezialitateetan nabarmen dago produkzioko injinadore eza, nahiz eta karrera bukatuta gero 30% toki hauetan ihardun lanean.

Eskola teknikoetan ematen diren gaien plangintzak nolako behar luke? Plangintza ziklikoa daitekeena ahal da?

Teknikoen prestakuntzak, edozein mailatan, bi helburu lortu behar ditu: langintzan sartzea lehendabizi, eta bigarren, bizkor aldatzen ari den teknologiarri jarraituz eguneratzeko ahalmena eskuratzea. Noski, hau guztia ez da erraza eta espezializazio eta kultura jeneralaren arteko oreka iritea da buruzkoena. Horretarako zentzuz eratutako programa bat nahi litzateke. Egungo programetan nabarmen ageri da zentzuzko hedaketen premia, oinarritzko gaiak eta bigarren mailakoak, guztiek batera gainazpi betetako saski baten antzera bait daude.

Plangintza ziklikoa, ez leikena bakarrik, beharrezkoa ere bada. Aldi berean iraupen ezberdineko bi bide, profesio eskoletatik har daitekeena, eta batxillerretik doana, batetik bestera pasatzeko eragozpen gertatzen da. Dagoeneko Heziketa Legeak dionez, Unibertsital Eskoletatik lenbiziko zikloa amaitzean, Goi mailako Eskoletara pasa leike bigarren zikloa egitera, halare sarretarako kursoan jartzen zaizkion eragozpenak direlata gutxi batzuk pasatzen dira.

Irakaskintza ziklikoa injinadoreen eskoletan ez ezartzeko bi dira eragozpen nagusiak: lehenengo, bi mailatako irakaskintzako planak ez daudela batera eginak; eta bigarren, Unibertsital Eskoletan irakaskintza kalitate gutxikoa izatea. Unibertsital Eskolak eta Goi mailako Eskolak elkartzek ekarri lezazke ondorio onak, premiazkoa dugun Euskadiko Unibertsitate Politeknikoan irakaskintza ziklikoa eratuz. Herriaren problematikan arrotz diren Unibertsital Barruti horietatik behingoz bereziz, plangintza orokorra dugu irten bide bakarra.

Gaurko eskola teknikoek bai al dute zerreginik teknologi aurrerakoien desapioan?

Teknologi aurrerakoiei buruzko eskola hauen zeregina ikerketa ekipoa sortzean datza. Ez liteke kalitatezko goi mailako teknika irakaskuntzarik eman ikerketa eraz zipriztindu gabe. Noski, zaila da, irakaskintza eta ikerketa, biak batera eramatea, nahiz zentroen eraketa aldetik, nahiz irakasleak irakaskintzari eta ikerketan aldi beran ihardute aldetik. Hau guztia bitartekoak eskuan direnean. Bistan dago, gure egoera guztiz bestelakoa dela.

Bestaldetik, ez da nahikoa eskoletan ikerketarako zentro bat izatea, beharrezkoa da honek ikasketetan zer ikusia izatea ere. Azkenengo hau bai dela zaila, batetik ikerketa lanak hari bati lotuak izan ohi direlako eta irakaskintza berriz gai orokorrei lotuta ematen delako. Gehiago oraindik, ikerketa bidez aurkitatuko ezaguerak irakaskintzan emateak beste eskabide bat dakar, horretarako bitarteko eta programak maiz aldatzea.

Nahiz eta gure teknologia kanpokoaren baitan egon, ez genezake berehala ikerketa bidez arazo hori konponduko dugunik pentsa. Halere, gaurkoz garrantzitsuena teknologia aurrerakoiak gureganatu eta asimilatzea da. Hone tarako, teknika informazioa bizkor zabaltzea da bitarteko bat. Eta jakina, eskoletan lortzen den heziketak zer ikusi handia du zeregin honekin.

Noraino joko zenuke premiazko karrera bukatu ondorengo formazioa?

Gertakizun bat da teknologi aldaketak gero baino gero azkarrago datozela, eta hortik jakinduria berehala atzendu eta zahartzea. Arrisku hau bera, gaiak zenbat eta espezializatuagoak hainbat eta nabarmenagoa da. Karrera bukatu ondorengo formazioa ez daiteke zalantzan jarri eta aipatutako eskola hauen helburu nagusienetako bat behar luke. Eskoletan teknikoei kurtsu normaletan eman zaien heziketa hutsune askorekin izan da, irakaslegoa bera arrotza eta gutxi gaitua.

Eskola ondorengo formazioak problema ugari ditu: eraketa, programazioa, eta bifartekoak. Gerora gisa honetako zerbitzu on bat egokitzeke, nolabaiteko instituzio bat sortu nahi litzateke. Antzeko eraketa, (URSS) en dute, osaketarako fakultate bidez titulatuak erreziklatzeko.

Irakaskintza teknikoak nola era daitezke noizpait Europako Merkatu Batuan industrial nortasunez sartzeko moduan?

Europako zenbait herriren jarraipenarekin konparatzen badugu Euskadin desteknifikazioa dator, ekonomi atzerakadarekin batera. Honetara garamatzaten arrazoiak etor litezke azken urteetako teknologi aurrerakada eta irakaskintza teknikoaren eraketa egokirik ezetik.

Lehenaldian, autarki egoeran eta teknologi aurrerapen motelagoak ziren garaian, teknikagintzak formazio larriegirik gabeko edozein batek egin zeza-keena zirudien. Gaur ordea, teknikagintzak nolabaiteko maila bat eskatzen du, eta teknikoak lehengo moduko prestakuntzarekin aurkitzen dira.

Egoera honetatik irakaskintza teknikoaren eraketara iristeko zenbait ikasketak egin beharrean izango gara. Ikasketa hau Euskadi osoan irakaskintza profesionala, eta besteak batera planifikatzera jo behar dugu, autonomiz eta elkarlanean saiaturaz. Horretarako oinarrizko puntu batzu jarriko nituzke:

—Aukeraz berezitako programa batzutan indarrak batu, zentzu kompetitiboari jarraituz. Zenbait programa nagusi erabiltzeko nazioarteko elkarlanean sartu beharko genuke.

—Ikerketa lanak herri ekintzan profesionalizatuen eskuetan jarri, ikertzailer gazteei etorkizuna eskuratuz. Langintza honen etekinak sektore guztientzat aurkeztuz nekazaritza, industria eta beste.

—Teknika zabalkuntzarako informazio bide egokiak sortu, espezialitate bakoitzeko azken aurrerapenak bizkor berezilariengana irits daitezzen.

—Lizentzi eta teknologi harremanak, nahiz laguntzaz edo patentez benetako ikasgaitzat erabili.

Irakaskintza egungo tekniko eskabideetara eratzekotan sektore desberdinek zer egin beharko lukete?

Esku hartze hau, lortzekotan dugun autonomi horren baitan ikusten dut, eta gero Euskadin soziopolitiko hedaketak burutuko luke.

Maila apalago batetan, izenda liteke kideko zenbait erakunde, esaterako Profesional Kolegioak eta Eskolak, karrera bukatu ondorengo zenbait zerbitzuz arduratzeko. Bestetik, Industria eta Eskolak ikerketa plangintza zabal bat eratzeko.

Irakaskuntza teknikoen arazoa erabakitzeak zerbait gehiago ere eskatzen du, erabakitzen denaren administrazio eta kontrola. Eginkizun hauk herrietako instituzioen, industria eta sindikatoen gain jarriko litzateke.